

MATA TXERRI



Orain dela ez dakit zenbat urte, Altsasu txikia zenean, herriaren historia aldatuko zen gertaera bat gertatu zen.

Maiatzaren gurutzean, Altsasun festa bat egiten zen. Urte hartan aek-ko lehenbiziko ikasleak antolatu behar zuten.

Festaren bezperan, prestatzen ari zirenean talogileak etorri ziren herriko enparantzara. Oso urduri zeuden talo guztiak lapurtu zituztelako eta jai ezin zutelako ospatu.

Jende asko bildu zen plazako zuhaitzaren inguruan zerbait egin eta taloak bilatzeko.

Herriko zaharrenak esan zuten Urbasan kobazulo batean arrano bat bizi zela eta dena ikusten zuela. Orduan, aek-ko ikasleak Urbasara joan ziren arranoarekin hitz egitera.

-Kaixo arrano jauna, zure laguntza behar dugulako etorri gara zuregana.

-Zergatik behar duzue nire laguntza? Zer gertatu da, ba?

-Festan jan behar genituen talo guztiak lapurtu dizkigute eta ezin dugu festa ospatu. Zuk ba al dakizu nor izan den lapurra?

-Zer irabaziko dut nik?

-Zer nahi duzu?

-Gutxienez txerri bat urtero negua pasatzeko. - Esan zuen arranoak.

-Ados.

-San Pedro ondoan etxe txiki batean Peio bizi da eta bera izan da lapurra.

-Peio? Eta zergatik lapurtu zituen gure taloak?

-Familia behartsuen artean banatzeko lapurtu zituen.

Arranoarekin hitz egin ondoren aek-ko ikasleak San Pedrora joan ziren Peiorekin hitz egitera.

Iritsi zirenean han zeuden Peioren etxolaren inguruan Altsasuko behartsu guztiak lapurtutako taloak jaten. Baina behartsuek aek-ko ikasleak ikusi zituztenean, talo guztiak bota eta korrika hasi ziren.

-Ez joan, mesedez!-oihu egin zuten ikasle guztiek batera.

Peio izan zen aek-ko ikasleengana joan zen bakarra, beste guztiek alde egin zuten.

-Barkatu ez nuen talorik lapurtu nahi baina ez nuen beste aukerarik izan -esan zuen Peiok.

-Lasai Peio, ulertzen dugu. Badakigu gose asko pasatzen ari direla eta horregatik bihar hamabietan txerri bat hilko dugu eta denon artean ardoarekin jango dugu. Esan zure lagunei gonbidatuta daudela bazkaltzera.

Hortik aurrera urtero Altsasun, Mata txerri eguna ospatzen dute maiatzaren lehenbiziko igandean.

Egileak: Juan Angel Beraza

Marian Carrasco

Xabier Montoia

Lyli Burgos

Esther Arias

Matias Rayo